astiberri

7 URTETIK AURRERA



ZIPOTZ

Gidoia eta marrazkiak: **Josephine Mark**
Annette Pehnt-ek idatzi eta **Jutta Bauer**-ek ilustratutako lanetan oinarrituta
Itzulpena: **Naroa Zubillaga**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2024
Kolorea. Paper-azala azal-hegalekin
96 orrialde. 17 x 23 cm. 12 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-19670-96-0

SALGAI, IRAILAREN 26AN

Hemen dugu *Txangoan Txiripaz*-en egilearen azken lana, Mathias Heller kazetariaren arabera, "istorio **interesgarri** bat desberdina izatearen, **onarpenaren** eta **tolerantziaren** inguruan"

Egokitzen ez den auzokide bat

Hau da hau ezustekoa! Mapatxeena izandako etxera auzokide berri bat iritsi da. Pinpirin eta gainerako auzokideek (pinguino erregeak, koartzek eta untxiek) bisitan joatea erabakiko dute. Zipotzek, ordea, halaxe izena duela jartzen baitu postontzian, hotz samar hartuko ditu. Lanpetuta dago, eta ez du ulertzen zer dela eta ezagutu behar dituen auzokideak eta haien lagun egin… Zipotzek ez du lagunik! Nahiago ditu lokatz-putzuak, arrain ustela edo zuloak egin. Pinpirinek, baina, ideia ezin hobea izan du: Zipotzek praktikatu egin behar du bisitak jasotzen ikasteko!

ASTIBERRI
astiberri.com
facebook.com/astiberri @astiberri @astiberri.infantil astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com

Josephine Markek *Txangoan Txiripaz* (Astiberri, 2023) idatzi zuen, eta orain berriz disfruta dezakegu egile alemanak horren berea duen marrazketaz, pertsonaia bitxiez eta hainbat interpretazio-geruza eskaintzen dituen istorio batez. *Zipotz* egokitzapen bat da, oinarrian alemanez idatzitako *Der Bärbeiss* gazteentzako liburu ezagunak baitauzka, Annette Pehnt idazleak idatziak eta Hans Christian Andersen sariaren irabazle Jutta Bauer-ek ilustratuak. Liburu horiek ez daude ez euskaraz eta ezta gaztelaniaz ere. Josephine Markek komiki goxo bat sortu du, oso gustagarria Tove Jansson egilearen mumindar-zaleentzat. Istorio honetan kontatzen zaigu nola iristen den Zipotz —guztiengandik aldenduta bizi den erretxina— Pinpirin alai eta atsegina bizi den komunitatera, hori guztia umore eta sentiberatasun handiz. Desberdina izanik, talde berri batera egokitu eta bertan integratzeko zailtasunak dituen edonoren istorioa izan liteke. Josephine Mark egilearen ustez, istorioaren gakoa da "nola lortu, desberdintasunak desberdintasun, zu zeu izaten jarraitzea, eta zein neurritaraino zauden etsitzeko prest, baldin eta pozik bizi nahi baduzu, bai komunitatean baina baita gizabanako gisa ere".

"Istorio interesgarri bat desberdin izateri, onarpenari eta tolerantziari buruz".

Mathias Heller - ***NDR***

JOSEPHINE MARKEN BESTE LAN BATZUK

Txangoan txiripaz
184 orrialde. 22 euro
ISBN: 978-84-18909-84-9

JOSEPHINE MARK (1981, Naumburg). Kultur hezkuntza eta mediatika ikasketak egin zituen Merseburg hirian, hainbat talde eta proiektutarako diskoetako azalak, kartelak eta liburuxkak diseinatzen zituen bitartean. Gaur egun, ilustratzailea, komiki-marrazkilaria eta diseinatzaile grafikoa da. Gainera, 2004tik ari da bere blogean (puvoproductions.com) binetak argitaratzen. Horietako batzuk liburu batean argitaratu zituen Verlag Pattloch argitaletxeak. Astiberrik 2023an argitaratu zion bere *road movie* komikoa, *Txangoan Txiripaz*. Lan horrexekin lortu zuen Josephine Markek komikiaren Berthold Leibinger sarirako finalista izatea 2022an eta, Erlangen hiriko azokan, haur komiki onenaren 2022ko Max und Moritz saria irabaztea. Orain *Zipotz* argitaratu du (Astiberri, 2024), Annette Pehnt eta Jutta Bauer egileek sortutako haurrentzako liburuen komiki-egokitzapen bat, eta Alemanian berriz editatu da *Murr* (Kibitz, 2024), argitaratu zuen lehenbiziko komikia. Sortzen dituen kontakizunak ia beti dira umoretsuak eta, askotan, hausnarketara bultzatzen dutenak; hala, egunerokotasuneko filosofia eta gai sozialak lantzen ditu.

ANNETTE PEHNT (Kolonia, 1967). Haur nahiz helduentzat idazten du. Katedraduna eta literatur kritikaria ere bada, Friburgo hirian bizi da familiarekin eta 2018tik Hildesheimgo Unibertsitateko Literatur Institutuko zuzendaria da. Hainbat sari irabazi ditu bere liburuengatik, besteak beste, Italo Svevo saria, Solothurn literatur saria eta Herman Hesse literatur saria. *Der Bärbeiss* izenburudun hiru liburuak, Jutta Bauer-ek ilustratuak, eta *Alle für Anuka* haur-liburua Hanser argitaletxean plazaratu ziren Alemanian 2013-2017 bitartean. Alemaniako Literatur Funtsaren saria irabazi zuen 2023an (*Großen Preis des Deutschen Literaturfonds*), argitaratu dituen lan guztiengatik. Astiberrik 2024an argitaratu du *Zipotz, Der Bärbeiss* lanean oinarrituta Josephine Markek egin duen komiki-egokitzapena.

JUTTA BAUER Hanburgo, 1955). Idazlea, ilustratzailea, animatzailea eta komiki-marrazkilaria da. Liburu ezagunenak dira *Schreimutter* (hitzez hitz: ama oihularia; Alemaniako haur literaturako sari nazionala irabazi zuen 2001ean), *Selma* (selma), *Die Königin der Farben* (koloreen erregina) edo *Opas Engel* (aitonaren aingerua). Gainera, 2010ean ilustratzaile onenaren Hans Christian Andersen saria eman zioten (HGLko Nobel Saritzat hartzen dena). Alemanian bertan nahiz kanpoan ospe eta zabalkunde handienetakoa duen egilea da, eta hainbatetan izendatu dute Astrid Lindgren Memorial Award sarirako, hain zuzen ere, 2011n, 2012an, 2020an, 2021ean, 2023an eta 2024an. Astiberrik 2024an argitaratu du *Zipotz*, Bauer-ek berak ilustratu eta Annette Pehnt-ek idatzitako *Der Bärbeiss* lanean oinarrituta, Josephine Markek egin duen komiki-egokitzapena.

Zer? Ur pixka bat besterik ez du behar lorategiak!
Kax
Kax
Saiatu indar gehixeagoz.
Kaixooo!!
DANBA
DANBA
NOR DABIL HOR?!


Auzokideak gaituzu! Kuku bat egitera etorri gara...
Zer? Zer ba?
Besterik gabe!
Geure burua aurkezteko!
Honako hau, pinguino erregea...
...untxiak...
...Tira... bi bakarrik...
...gure hiru koartzak...
Eta ni, Pinpirin.
Hor ondoan bizi naiz!
Aurkez-penak eginda, beraz.